

15. Salmoa

Bizirako bidea erakutsiko deustazu, Jauna.



**R/.** Zu zai - tut, Jau - na, on - da -su - na.



Zaindu nagizu, Jauna, babes bila nator zugana.  
Honela dinotsat Jauna : “Zeu zaitut nire jabe”.  
Jauna da nire ondare eta edontzia;  
Zeuk daukazu eskuetan nire zoria. **R/.**

Onesten dot Jaua, aholku emon deustalako,  
gauz ere nire bihotzak adierazten deustalako.  
Begi aurrean ipinten dot Jauna beti  
eskuman daukadala, ez dot dardararik. **R/.**

Horregaitik alai daukat bihotza, pozik barrua,  
haragi honek ere bakean dau atsedena.  
Ez dozulako nire bizia leizera jaurtiko,  
ezta zure zintzoa ustelak hartzen itziko. **R/.**